

NOLA IDATZI GUTUN IREKI BAT

Egunkari edo aldizkari bateko zuzendariari bidaltzen zaion gutuna, irakurleak bere iritzi, eskabide, kexa eta abar adierazteko baliatzen duen testua izaten da.

1. Begiratu irudiari, eta erantzun.



- Zer arazo du irudiko pertsonaiak? _____
- Zer egin dezake iritzi publikoari arazo horren berri emateko? _____

2. Adierazi, zure ustez, egoera egokiak direnak egunkari batera gutun bat idazteko.

- Herrian zehar dauden zakarrontzinak apurtuta egotea.
- Maitasun aitortpena.
- Familiarteko batentzako gutun pertsonala.
- Kexa bat auzoan gauez izaten diren zarategatik.
- Zorionak ematea auzoan zabaldu duten liburutegiagatik.
- Urtebetetze festarako gonbidapena.

1.gutuna. Ingurumenarekin konprometitutako ikasleak
Zuzendari jn./and.:

Luzaro ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6.mailako ikasle talde bat gara, eta Ingurumenaren babesari buruz jardun dugu egun hauetan klasean. Gure taldeari idazlan hau agindu digute: "Zer egin dezakegu geure etxean eta eskolan ingurumen inpaktua txikiagotzeko?"

Geure artean eztabaidatu ondoren, ohartu gara zer gauza hasi gaitezkeen egiten hainbat ohitura aldatzeko:garraio publikoa erabili, erabiltzen ari ez garen tresna elektrikoak itzali, ur eta elektrizitate kontsumoak minimo behar-beharrezkora murriztu, ahal den material guztia berrerabili eta birziklatu, etab. Baina, batzuetan, zaila gertatzen da ohiturak aldatzea.

Garraio publikoari dagokionez, esan beharra dago gutako gehienok auto partikularrean ekartzen gaituztela eskolara. Gurasoen artean inkesta bat ere egin dugu, eta la denek diote ez dagoela beste aukerarik. Eskola herritik kanpo geratzen da, eta apenas dagoen garraio publikorik.

Gutun honen helburua zera da, gure arazoa jakinaraztea eta udalari eskatzea autobus linearen bat luzatzeko eskolaraino iritsi dadin, klaseen hasiera eta amaiera orduetan besterik ez bada ere.

Bestalde, eskolarako bidea oso aldapatsua da, eta askori neketsuegi gertatzen zaie bizkar zorroak bete-beteta dituztela oinez joateko, eta horrexegatik hartzen dute guraso askok autoa. Eskolan ikasleen eta gurasoen sinadurak biltzen ari gara autobus linearen bat bertaraino irits dadin eskatzeko.

Ingurumenaren babesa denoi dagokigun gauza da.

Saioa Lasarte eta beste zazpi sinadura

2. gutuna. Luzaro eskolako Zuzendaritza eta irakasleak erabat ados gure ikasleen ekimenarekin

Zuzendari jn./and.:

Herenegun, maiatzak 15, zure egunkariak gutun bat argitaratu zuen saia Lasartek (eta beste zazpi sinadura) izenpetuta, autobus linea bat Luzaro eskolaraino luza zedin eskatuz.

Eskabide hori dela eta jasotzen ari garen atxikimendu ugarien aurrean, familien aldetik ez ezi, bai eta auzune honetako herritar asko eta askoren aldetik ere, Eskolak idazkaritzan mahai bat antolatu du sinadurak jasotzen jarraitzeko, hilaren amaiera arte zabalik egongo dena.

Ondoren, udaletxean aurkeztuko dugu eskabidea sinadura guztiekin batera.

Eskolako zuzendari gisa aitortu behar dut harro sentitzen naizela halako ikasle jatorrak eta konprometituak dauzkagulako. Eurek dioten bezala "Ingurumenaren babesa denoi dagokigun gauza da"

Miren Kortabitarte

Luzaro eskolako zuzendaria

3. Zer erreakzio eragin du lehenbiziko gutunak egunkariaren irakurleen artean? _____

4. Zer lotura dago lehenbiziko gutunaren eta bigarrenaren artean? _____

5. Osa ezazu taula hau:

	1. Gutuna	2. Gutuna
Nork idatzi du?		
Norentzat da?		
Zein da arrazoia?		

6. Azaldu zein den lehenbiziko gutunaren gaia, eta zein bigarrenarena.

- Lehenbiziko gutuna: _____
- Bigarren gutuna: _____

Gutun irekiek, edo zuzendariari bidalitakoek baldintza hauek bete behar dituzte:

- ✓ Izenpetuta egotea.
- ✓ Laburrak izatea.
- ✓ Begirunez idatzita egotea.
- ✓ Ongi idatziak egotea, edukia erraz ulertzeko eta ideia nagusia aise identifikatzeko den era.

7. Idatzi gutun bat egunkari edo aldizkari bateko zuzendariari. Gogoratu idazten hasi aurretik zein izango den planteatuko duzun gaia, eta adieraziko duzun ideia nagusia.
